



EAS aldizkaria
1. zenbakia
2019ko azaroa

EUSKARAREN
ADIERAZLE
SISTEMA



ELKARRIZKETA
IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA | SOZIOLINGUISTA

**“Euskararen eremu
politiko-administratibo
ezberdinetako estatistikak
eta sistemak bateratzen
laguntzen ari da Euskararen
Adierazle Sistema”**

eas



—
EUSKARAREN
ADIERAZLE
SISTEMA
—

Aurkibidea

- 3 EDITORIALA
- 4 DATUEN ARGITAN
- 8 ELKARRIZKETA
- 16 TESTIGANTZAK
- 18 NOLA EGIN KONTSULTAK

Euskararen egoera eta bilakaera jasoz ezagutzera eman

DATUAK ETA HORIEK ORDENATUZ, EGITURATUZ ETA TESTUINGURUAN KOKATUZ ESKURATU DAITEKEEN INFORMAZIOA DIRA JAKINTZAREN LEHENGAI.


Jakiteak ez du ogirik jaten dio aspaldiko esaerak. Baina jakintza ez da ezerezetik sortzen, haren jabe izateko, ezinbestekoa da lehen-gaiak eskuratzea eta lantzea. Datuak eta horiek ordenatuz, egituratuz eta testuinguruan kokatuz eskuratu daitekeen informazioa dira jakintzaren lehengaiak. Gai bati buruz behar bezalako informazioa eskura izateak aukera ematen digu gai horren aurrean nola jokatu jakiteko. Informazioari esker gertaerak ulertu edota horiei esanahia eman diezaiekegu, eta behar bezalako ezagutza sortu ondoren, erabaki egokiak hartu edozein arlotan, baita euskararenean ere.

Euskaren eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri emango duen adierazle-sorta da **Euskararen Adierazle Sistema (EAS)**. Era planifikatuan eta sistematikoan diseinatua eta modu iraunkorrean eta antolatuan datuz elikatuta eta eguneratuta dago. Euskararen egoera eta bilakaera jasotzeko eta ezagutzera emateko helburua du EASek; gizartearen esparru desberdinetan euskarak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balio behar du.

EASen ezaugarriak honakoak dira: titulartasun publikokoa; zerbitzu publiko iraunkorraren bokazioz eraikia; kontsentsu politiko, sozial eta tekniko ahalik eta zabalenean oinarritua; aldiro-aldiro argitaratuko duen informazioa erraz ulertzeko modukoa izango da; batez ere, kuantitatiboa, baina alderdi kualitatiboak ere izan ditzake lekua eta zentzua; euskararen lurraldeak izango ditu jomuga, ahaztu gabe egungo mundu globalizatuak muga geografikoak askotan gainditzeko dituela; herri-administrazioaren maila ezberdinak (Gobernu, foru aldundi, eskualde, udal...) aintzat hartuko ditu, horietako bakoitzak hizkuntza-eremuan dituen eskumen eta interbentzio-arduren arabera.

Hizkuntza biziberritzeko garatuko diren estrategiei eta praktikei oinarri objektiboa eskaintzen die EASek; hortaz, euskarak dituen eronkei heltzeko tresna lagungarria izango da.

Datuen argitan



1.-

16 urtetik gorakoan artean euskaldunak % 28,4 dira Euskal Herrian. Gazteen artean euskaldunak % 55,4 dira.

2.-

Gaur egun, euskaldunen % 36,2 euskaldun berriak dira, eta horrek eragina du euskaraz egiteko erraztasunean.

3.-

Euskaldunen % 44,5 hobeto moldatzen da erdaraz euskaraz baino. Izan ere, euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan.

4.-

Euskara erabiltzen dute erdara baino gehiago hamarretik batek (% 11), kalean ere euskaraz dira hamar elkarrizketatik bat baino zertxobait gehiago (% 13).





5.-

Euskara sustatzeren alde % 56 agertu dira; Nafarroan eta Lapurdi biztanleen herenak dute aldeko jarrera.



6.-


Euskara dakiten hamar gurasoetatik ia bederatzik euskara transmititu diete seme-alabei (% 87,3). Transmisioa nabarmen txikiagoa da gurasoetako batek bakarrik dakienean euskaraz (% 45 amak dakienean, eta % 31 aitak dakienean).



7.-

Unibertsitatekoak ez diren ikasleen % 66,8k EAEn, % 24,5ek Nafarroan eta % 7k Iparraldean euskarazko murgiltze ereduak ikasten dute (D ereduak EAEn eta Nafarroan). Bestalde, EAEn ikasleen % 18,7k eta Iparraldeko % 19,4k eredu elebidunean ikasten dute.

Datuen argitan



8.-

Unibertsitatean graduetan matrikulatutako kredituen % 41 euskaraz izan ziren EAEn eta %9 Nafarroan 2016/2017 ikasturtean.

9.-


43.411 pertsona ari ziren euskara ikasten 2016/2017 ikasturtean Helduen Euskalduntzean.

10.-

Lankideekin gero eta gehiago erabiltzen dugu euskara erdaraz beste edo gehiago (% 20,5). 1991n, % 13 zen.

11.-

Lagunekin lankideekin baino apur bat gutxiago erabiltzen da euskara (% 18), eta azken urteetako gorakada apalagoa izan da (1991ko % 15etik, 2016ko % 18ra).





12.-

Kulturan, EAEn ekoitzitako ikuskizun eszenikoen (% 58,5) eta ikus-entzunezkoen erdia baino gehiago (% 50,7) euskaraz (ere) izan ziren.



13.-

EAEn, DBHn Lehen Hezkuntzan baino nabarmen gutxiago erabiltzen da euskara jolaslekuan (beti euskaraz % 20,8 Lehen Hezkuntzan, eta % 11 DBHn) eta eskolaz kanpoko ekintzetan (beti euskaraz % 20,9 Lehen Hezkuntzan, eta % 13,2 DBHn).



14.-

Sare sozialetan gehien erabiltzen diren hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira, baina euskararen erabilera gorantz doa. Denboraren zati bat —txikia izanda ere— euskaraz eman zuten sare sozialetan, 2011n, % 20k, eta 2016an, % 26k.

“Adierazle sistema erabilgarria da hizkuntza suspertzeko planek dituzten jomugen inguruko lorpenak neurtzeko”

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA | SOZIOLINGUISTA

Iñaki Martínez de Luna (Gasteiz, 1950) hizkuntzaren soziologian aditua da, bereziki hizkuntza gutxituen soziolinguistikan. EHUko irakasle izan da, eta hizkuntza eta soziologia-ekin lotutako hainbat erakundetako kide: EUSTAT, Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduradun, HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondoko zuzendari, Auñamendi Eusko Entziklopediako zuzendari, Soziolinguistika Klusterraren lehendakari, ARRUE ikerlerroko zuzendari eta Euskararen Adierazle Sistema (EAS) proiektuko lehen zuzendari (2013-2018), besteak beste. Euskaltzain urgazlea da 2015 ezkerre eta, 2019tik aurrera Garabideko lehendakari. EASEk egiten duen ekarpenaz eta euskararen inguruko datu estatistikoek galdetu diogu.

Zergatik da garrantzitsua Euskararen Adierazle Sistema (EAS)? Zein ekarpen egingo dio euskarari? Euskararen egoera zein bilakaera aztertze asmoz, adierazle-sistema horrek informazio multzo bat –estatistikoa, batez ere– jasotzen du, era sistemati-koan, antolatuan eta egituratuan. Hala nola euskararen estatus juridikoaz, gaitasunaz, erabileraz, jarreraz, edo-eta transmisioaz.

Euskararen inguruko deskripzioa marrazteko ez ezik, adierazle sistema erabilgarria da hizkuntza hori suspertzeko planek dituzten jomugen inguruko lorpenak neurtzeko ere; hots, lortu nahi den helburu nagusia edo-eta arlokako helburuak zenbateraino ari diren betetzen zehatz-mehatz ezagutzeko balio dezake Euskararen Adierazle Sistemak. Bildutako informazio mota ezberdin horiek lagun-gerriak izan daitezke abian dauden planak zein programak ebaluatze edo-eta interbentzio mota berriei ekiteko.

Euskal Herri osoko datuak biltzen ditu eta urtez urte biltzen diren adierazle ezberdinak “estandarizatzen” joango dira. Datuak biltzeko garaian guztiek berdin jarduteak ere badu garrantzia, ezta? Bai, dudarik gabe. Hori bera da sistema gaur egun egiten ari den hirugarren ekarpena: euskararen lurralde ezberdinetako informazioak homogeneizatu eta batera ekartzea. Izan ere, egoera baten ebaluazio osatuagoa burutzeko komenigarria da leku zein baldintza ezberdinak elkarrekin alderatzea.

Hartara, euskararen eremu politiko-administratibo ezberdinetako estatistikak eta sistemak bateratzen laguntzen ari da EAS: bai estatistika berriak eremu guztietan modu bertsuan sortuz, bai leku batzuetan abian jarri nahi diren estatistika berriek beste lekuetako erreferentzia errepikatuz. Adibide bat: EAeko Arrue ikerlana abian da aspaldidanik eta horren eskutik eskoletako euskararen erabileraz jasotzen diren emaitza batzuek Euskararen Adierazle Sistema elikatzen dute; Nafarroan, 2019an lehenbiziko aldiz, diseinu bereko informazio bilke- ta burutu da adierazle sistema elikatu ahal izateko.



Norentzat izango da baliagarri adierazle sistema?

Euskara gu guztion ondare kulturala izanik, bere biziberritze eta biziraupen osasuntsuak denon interesa piztu dezake; argi dago edozein herritar izan daitekeela sistemaren erabiltzaile.

Horrezaz gain, euskalgintza instituzionaleko eta sozialeko eragileek osatuko lukete erabiltzaile espezializatuagoen multzoa, berain planen eta programen diseinuak eta jarraipenak hainbat kasutan erreferentzia estatistiko sendoen premia dutelako.

Era berean, soziolinguistika eremuko akademiko eta ikertzaileek ere balia dezakete euskararen adierazle sistema, hausnarketa eta lanketa zientifikoek oinarri enpiriko sendoak izan ditzaten.

Askotariko datuak biltzen ditu EASek. Has gaitzen datu orokorretatik: zer nabarmenduko zenuke euskara-gaitasunari dagokionean? Eta zer erabilerari dagokionean? Euskarazko gaitasunaren hazkundera da nabarmengarria, batez ere gazte eta umeen artean. Hori esanda, gaitasun hori erlatiboki ahula dela ere ohartarazi behar da; alegia, egungo euskaldunen gehiengoak gaztelania hobeto menderatzen duela euskara baino. Horrek negatiboki eragin dezake erabileran.

Eta erabilerari dagokionez, aipagarria da, batetik, gazteak eta haurrak direla euskaraz gehien egiten dutenak, nahiz eta erabilera maila hori lekutan dagoen gaitasunak duen hedapenetik. Bestetik, zantzu sendoak daude pentsatzeko erabilerak sabaia jo duela zenbait egoeratan (kalean, D ereduak ikastetxeetan...), eta aurrerapausoak egiten jarraitzeko euskara suspertuko duten politika eta neurri berriak behar direla.

Euskal Herri osoa kontuan hartuta igo egin da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, nahiz eta bilakaera hori ez den homogenea izan. Lurralde batzuetan euskararen erabilera sustatzearen aurkako jarrera igo egin da. Zuk sakon aztertu dituzu herritarren jarrera eta diskurtsoak. Datuak behar bezala irakurtzeko zein dira gakoak?

Euskara sustatzearen aldeko jarrera indartu da hiztun ezberdinen arteko errespetua eta hizkuntza horren gaineko kontakizun edo diskurtso inklusiboak nagusitu den eskualdeetan. Halakoak, hiztun

Etxean erabiltzen den hizkuntza (≥ 16urte). Euskal Herria, 2016 (%)

Beti euskaraz

% 8,7




Euska
erdaraz
gehia
% 2

Beti euskaraz	8,7
Euskaraz erdaraz baino gehiago	2,8
Euskaraz erdaraz beste	4,0
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	7,0
Beti erdaraz	77,5
Guztira	100,0

“ZANTZU SENDOAK DAUDE PENTSATZEKO ERABILERAK SABAIA JO DUELA ZENBAIT EGOERATAN ETA AURRERAPAUSSOAK EGITEN JARRAITZEKO EUSKARA SUSPERTUKO DUTEN POLITIKA ETA NEURRI BERRIAK BEHAR DIRELA”

“GURASO ASKOK BARNERATU DUTE EUSKARAREN FAMILIA TRANSMISIOAREN GARRANTZIA, ETA BERE EGINTZAK HORREN ERANTZUKIZUNA”



iturria: inkesta soziolinguistikoa

ezberdinen arteko elkarbizitza bideratzeko ezinbesteko baldintzak dira eta, ondorioz, euskara ez da arazo bezala ikusten.

Aldiz, herritarrok ez dugu gatazka gustuko, gure ohiko bizimodu erosoan jar dezakeelako. Hortaz, sustatzearen kontrako jarrerak areagotu dira euskara elkarbizitzarako arazo-iturri edo gatazkatsu bezala antzematen jarraitzen den lurraldean.

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak behera egin du, eta gora, aldiz, euskara eta erdara biak dituztenenak. Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak behera egin du gazteengan eta hortik gorakoengan, baina 2017ko datuen arabera nerabe eta haurren euskararen familia bidezko transmisio hori hazten hasi da.

Bestalde, lehen hizkuntza euskara eta erdara(ren bat) batera dituzten haurren proportzioan goranzko

joera agertzen da. Horren arrazoi nagusia da gurasoetako batek euskaraz ez jakitea -edo zertxobait baino ez jakitea-.

Zer esan dezakezu oraingo guraso euskaldunen euskararen transmisioaz? Guraso euskaldunen kopurua handitu ahala seme-alabekiko familia transmisioa ere areagotzen ari da. Hala ere, guraso euskaldunen euskararen transmisioa % 100era izatera ez da iristen, eta arriskua da horretan atzerakada gertatzea. Izan ere, guraso berrien artean gero eta ugariagoak dira familian ez, baizik eskolaren bitartez euskaldundu direnak. Halakoen euskarazko sozializazioa mugatua da. Horregatik, transmisioaren aldeko gizarte bulkada sendoa sentitu ezean oso litekeena da halako gurasoek familian euskaraz ez egitea.

Duela hamarkada batzuetako bikote mistoen kasuan seme-alabekiko transmisioa sarri eten ohi zen. Gaur egun, aldiz, mota horretako familien gehiengoan ahalegina egiten da seme-alabei euskaraz hitz egiten. Alegia, guraso askok barneratu dute euskararen familia transmisioaren garrantzia, eta bere egin dute horren erantzukizuna.

Hezkuntza arloko datu asko biltzen ditu EASEk. Zein joera nabarmenduko zenuke hezkuntza arloan euskarari dagokionez? Joera bat badago, adibidez, erabileran murriztu egiten dela lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzara pasatzean. Aisialdiko datuetan ere nabarmena da aldea. Zein izan daitezke horren faktoreak? Eskola giroko euskararen erabilerak gorantz egin du, oro har, D hizkuntza ereduaren ikasten duten ikasleen proportzioa gero eta handiagoa delako. Hala ere, 2015ean geldiuene bat antzeman da D ereduaren ikasleen eskolako erabileran; moteltze horren zergatia sakon eta zorrotz ikertu beharra dago, goranzko joera berreskuratu ahal izateko.

Haurtzarotik nerabezarora euskararen erabilerak jasaten duen atzerakadaren gakoa hizkuntza sozializazioarena da. Izan ere, hezkuntza sistemaren eragina –hizkuntzan ere- askoz nabarmenagoa da haurren nerabeengan baino. Azken horiek gizarte orokorrerantz jartzen dira begira, eta bertan ikusten dituzten ereduak ikasleek bere egiten dituzte. Jakinaenez, gure gizartean erdarak –gazte-



**“EUSKARARI LEKUA EGITEN
AHALEGINDU BEHAR DUGU EREMU
DIGITALEKO ADIERAZPEN MOTA
GUZTIETAN”**

**“ADIERAZLE SISTEMA BIG DATAREN
IKUSPEGITIK ERE GARATU BEHARKO
LITZATEKE, EZAGUNA BAITA
HALAKO LANKETAK NOLAKO
EZAGUTZA ZORROTZA EMATEN
DUEN AZTERGAIAREN INGURUAN”**

lania, frantsesa, ingelesa- dira jaun eta jabe; hortaz, nerabeek, nagusi planta eginez, helduen hizkuntza portaera imitatu nahi dute, haiek ere badirela edo argi utzi nahirik. Eragin hori salbuespen batekin berresten da: euskararen arnagune diren herrietan erabileraren jaitsiera oso txikia da haurtzarotik nerabezarora; izan ere, eremu horietan nerabeek begi bistan daukaten helduen eredu euskarak du pisu askoz handiagoa gaztelaniak baino.

Gaur egun geroz eta gehiago erabiltzen ditugu harremanetarako sare sozialak, app-ak, ingurune digitala, azken batean. Ikusten dugu horietan euskararen erabilpena oso urria dela. Mundu globalizatuaren dinamika askok aniztasuna suntsitzerantz bideratzen dira, eta hizkuntza gutxituak ere arrisku horren menpe daude. Eremu digitalak (sare sozialak, app-ak etab.) bizi-baldintza berriak ezarrit, atea zabaltzen die hizkuntza handiei eta hizkuntza-komunitate txikiek zokoratuak suertatzeko arriskua dute. Hori kezkarriagoa da oraindik era digitalean jaiok diren belaunaldien kasuan.

Horregatik, euskarari lekua egiten ahalegindu behar dugu eremu digitaleko adierazpen mota guztietan. Hala ere, ez dut uste elementu guztiak euskaraz baliatzea posible izango denik eta, efizientziaren izenean, gure egunerokoan presentzia handiena duten osagaiak euskaraz egotetik hasi beharko litzateke.

EASEk, aurreneko aldiz, EAEko udalerrietako datuak eskainiko ditu. Zer garrantzia du horrek? Udallerriak -eta beren auzoak edota Arabako kontzejuak- dira herritarrengandik gertuen dauden interbentzio maila, eta bertan sortzen eta elikatzen dira hizkuntza-plan eta programa ugari, euskalgintza herritarraren zein instituzionalaren bitartez. Hortaz, maila horretako informazioa ere eskura izatea oso lagungarri gerta daiteke eguneroko egoeren diagnostiko zehatzak egiteko eta, abiapuntu horrekin, interbentziorako diseinu egokiagoak osatzeko; baita lekuan lekuko interbentzioaren emaitzak ondoren ebaluatzeko ere.

Euskararen egoera zertan den ezagutzeko ba al dago gaur egun jasotzen ez den, eta garrantzitsua den, datu kuantitatiborik? Komunitate ba-

ten egunerokoa hizkuntza batek duen lekua eta pisua zehatz-mehatz ezagutzeko datu ugari bildu beharko lirateke. Adibidez, kutzazain automatikoetan, parkimetroetan, webguneen interfazeetan eta betetzen ditugun beste hamaika ekintza eta eragiketatan baliatzen dugun hizkuntzaren berri zuzena jasotzeko aukera gero eta errazagoa da.

Horrek baditu abantaila garbiak: lehendabizi eguneroko jardun arrunt askotako hizkuntza-portaeraren berri izan ahal izatea; bigarrenik, maila orokor edo makro-sozialekoa eskuratzea ez ezik, lekuan lekuko maila mikro-sozialekoa lortzeko ere bai; hirugarrenik, informazio mota horren objektibotasuna da, versus inkestetan jasotzen diren aitortzen subjektibotasuna. Era horretan, beraz, euskara sustatzeko burutzen diren ekintzen emaitzak eguneroko bizitzan islatzen ote diren ongi ezagutu liteke, eta ager litezkeen aurrerapausoen eta atzerapausoen nondik norakoak sakon aztertzekeo parada irekiko litzateke.

Azken buruan, adierazle sistema big dataren ikuspegitik ere garatu beharko litzateke, ezaguna baita halako lanketak nolako ezagutza zorrotza ematen duen aztergaiaren inguruan.


Zer bide du EASek informazio-iturri berriak finantzatzeko? Gizarteko hainbat eragilerek elkarlana bultzatzean eta horien inplikazioa bilatzean datza informazio iturri berriak aurkitzeko aukera; adibidez, big data motako informazioa eskaini dezaketen enpresa eta erakundeekin. Gakoa hau da: informazio sistematizatua sortzen eta lantzen dutenek -arloan pribatukoak edo publikokoak izan- Euskararen Adierazle Sistema hornitzeko premiarekin bat egitea eta horretan laguntzea. Horrela eginez, erakunde horiek beren ohiko fun-

iturria: inkesta soziolinguistikoa

tzionamenduan txertatuko lukete gure hizkuntzarekiko kezka eta horri erantzuteko beharrezkoak diren neurriak hartuko lituzkete.

Euskal Herritik kanpo ba al dago antzeko adierazle sistemarik? Zein ekarpen egin die hango hizkuntza gutxituei? Zer ekar genezake esperientzia horietatik Euskal Herrira? Bi adierazle sistema bururatzen zaizkit: Kataluniako adierazle sistema eta ELDIA (European Language Diversity for All) proiektuaren eskutik sortu den European Language Vitality Barometer (EuLaViBar). Kataluniako adierazle sistemak lortu duen erabilerera mugatua omen zen duela urte batzuk, baina harrezkero ez dut berri gehiagorik izan.

EuLaViBar ekimenak Europako erdialdeko eta iparraldeko bederatzi herrialdetan kokatzen diren hamabi hizkuntza komunitate ditu aztergai,



honako helburu honekin: hizkuntza gutxituak suspertzeko asmoz kasu horietan garatzen eta inplementatzen diren planen premia nagusiak identifikatzen laguntzea.

Halako ekimenek agerian jartzen dute, euskararen lurraldeetan ez ezik, nazioarte mailan ere badagoela hizkuntza gutxituak suspertzeko dinamika bat eta, kezka hori bideratzeko, adierazle sistemak erabiltzen direla. Beraz, ez da kasualitate hutsa izango euskararen inguruan beste horrenbeste egin izana.

Aurrera begira, zein erronka ikusten dituzu EASentzat? Euskararen Adierazle Sistemak zenbait erronkari egin behar die aurre. Hasteko, erabiltzaile nagusiak zein diren -edo izan litezkeen argi identifikatu beharko ditu, beraien premiei modu zuzenagoan eta zehatzagoan erantzun ahal

izateko. Horretan asmatuz gero, erabiltzaileen eskaera handituko da eta, horrekin, sistemaren garrantzia areagotuko da.

Bestalde, ohiko informazioa etengabe bildu eta sistematizatzeaz gain, beste informazio berriak identifikatu eta baliatzen hasi beharko da; adibidez, arestian aipatu den big data motakoa.

Azkenik, abian dauden beste sistemetara hurbildu beharra du, adierazleen diseinuak beste proiektu horiek dituztenekin -pixkanaka eta ahal den neurrian- estandarizatzeko asmoz. Izan ere, sistema batek eskaintzen duen informazioa beste sistemek dutenarekin zenbat eta homogeneoagoa izan, orduan eta egoera zein politiken emaitzak konparagarriagoak izango dira eta, horren ondorioz, adierazle sistema bera ere erabilgarriagoa. 🗨️

Testigantzak



Maite Asensio Iparragirre
URTXINTXA

“Euskararen Adierazle Sistema erreferentziako tresna da Urtxintxan. Alde batetik, formatzen ditugun hezitzaileei datuak ezagutzearen garrantzia azpimarratzen diegu. Bestalde, EASen bitartez datuak aztertzen ditugu, inguru bakoitzean helburuak eta lan lldoa errealitatera egokitzeke asmoz”



Jasone Aretxabaleta
SPRI

“Gure erakundearen barruan eta industria alorrean euskararen erabilpena areagotzeko lanean murgilduta gauden honetan, ezinbestekoa dugu errealitatea ezagutzea. EAS adierazle sistema bidelagun ezin hobea izango dugu egoera zein den jakiteko eta hobekuntza neurri egoki eta zuzenak hartzeko”



Josu Amezaga
EHU

“Errealitatea ulertu eta, bereziki, eraldatu nahi dugunontzat, oso lagungarria da oinarrizko informazioa eskura edukitzea. EASEk modu erraz eta arin batean ematen digu euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko argazkia. Horri esker, datuak bilatzen aurrezten dugun denbora datuok interpretatzen eman ahal dugu”



Idoia Peñacoba
Mondragon Unibertsitateko
Idazkari Nagusia

“Unibertsitate euskalduna gara, gure ikasleen gehiengoa euskalduna izanik. Baina euskal Herriko errealitatea ez da berdina adin-tarte nahiz lurralde guztietan,

eta diagnostiko zuzenak egiteko eta egoeren bilakaera ezagutzeke oso garrantzitsua da EAS bezalako informazio-tresnak izatea, euskararen erabilera unibertsitatean bai eta lan munduan suspertzea helburutzat duen gu bezalako unibertsitate euskaldun batentzat”





Iraitz Lazkano
UEMAko lehendakaria

“Euskararen arnaguneetan gertatzen ari denaren ikuspegi zabala izateko adierazle horien jarraipena beharrezkoa izango dugu”



Xabier Elortza
HABE

“Euskararen egoera hainbat gizarte esparrutan labur eta era sinkroniko eta diakronikoan ezagutzea ahalbidetzen duen tresna erabilerraza”



Marie-Andrée Ouret
BIGA BAI buraso elkarteko lehendakaria

“Elkartearen jardueren eta adierazpenentzat, usu behar ditugu euskararekiko hainbat datu bildu, bereziki hezkuntza arloan. Estatistika zifratuak behar ditugu jakiteko ikasleak nola banatzen diren sail eta maila desberdinetan, eta kopuruak izartzeko. Atal horretan informazio ahal bezain zehatzak, fidagarriak eta eguneratuak behar ditugu, baita ere hauen bilakaera ikusi urteetan. EAS bezalako tresna oso baliagarria ikusten dugu gure arloan, informazio nagusiak toki berean bilduak, molde profesionalean eskuragarri, eta konparaketak egiteko gisan eskainiak direlako.”



Garikoitz Goikoetxea
BERRIA

“Datuak behar ditugu zer gertatzen ari den jakiteko eta horren berri emateko. Hori eskatzen baitigute irakurleek: datuak eta interpretazioak. Euskararen Adierazle Sistema ezinbesteko tresna dugu zeregin horretan”



Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea

“Euskararen Adierazle Sistema osatua eta garatua behar dugu gure lanean diagnostiko sendoagoak egin ditzagun eta, horien ondorioz, hobeki finkatzeko gure lan-ildoan garapena, helburuak eta lehentasunak. EAS erabilgarria izanen dugu udalerrri mailako edo, gutxienez, zona soziolinguistikoan mailako datuak eskuratzea posible bada”


Nola egin adierazleen kontsulta?

euskadi.eus/eas

mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html

euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema

DATUAK JARDUNGUNE HAUETAN BANATZEN DIRA:



Taulan:
px edo excell

Fitxa teknikoak:
adierazlearen ezaugarriak, iturria, dokumentazio interesgarria.

Adierazleak

Azpi adierazleak:

Oinarritzko adierazleetako datuak sailkatuta aurkituko ditugu.



* Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako webguneetan ere erabilgarri dago EAS euskararen adierazle sistema

3 KONTSULTA MOTA EGIN DAITEZKE: TAULA BIDEZ, GRAFIKO BIDEZ ETA MAPA BIDEZ

ADIBIDEA

Euskara-gaitasuna (>=16 urte), Euskal Herria adierazlea aukeratu dugu.

TAULA BIDEZ


1 Klikatu izenean



2 Eremu bakoitzean gutxienez balio bat aukeratu dugu.

Demagan nahi dugula jakin Euskal Herri osoan zein izan den euskaldunak eta euskaldun hartzaileren bilakaera, 16 eta 34 urte bitartekoan, 1991-2016 urteen artean.

Aukeratu balioak eta sakatu jarraitu



3 Taula formatu ezberdinetan gorde ahal izango dugu.

Euskara-gaitasuna (>=16 urte), Euskal Herria per Eremu geografikoa, Hiztun-mota eta Aldia


	2016	2011	2006	2001	1996	1991
Euskal Herria	36,4	29,0	31,7	31,4	31,4	32,3
Euskaldun hartzailak	16,4	14,7	13,4	10,0	14,3	9,7

GRAFIKO ETA MAPA BIDEZ

Aldagaiaren balio jakin bat aukeratu, datuak grafiko eta mapa bidez irudikatuta agertuko dira.



Grafikoa



Mapan





Adierazleen kontsulta egin nahi?

- euskadi.eus/eas
- euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema
- mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html

* Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako webguneetan ere erabilgarri dago EAS euskararen adierazle sistema.

